

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARTZINIEGAKO UDALA

#### **Onestea Artziniegako Udalaren kultur eta kirol jardueretarako 2021eko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia**

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 22an egindako bilkura berezian, hau erabaki zuen:

Onestea Artziniegako Udalak 2021eko ekitaldian kultur eta kirol jardueretarako emango dituen dirulaguntzen deialdia eta deialdi hori arautzen duten oinarri espezifikoak, honela:

Artziniegako Udalaren kultur eta kirol jardueretarako 2021eko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak eta deialdia

#### **1. artikulua. Diruz laguntzeko eremuak eta dirulaguntza lerroak**

1. Aisia eta astialdiko jarduerak.
2. Gizarte eta kultura animazioko eta komunitate garapeneko jarduerak.
3. Kultura ondarea.
4. Kirola sustatzeko jarduerak.
5. Tradizioak babesteko eta zabaltzeko proposamenak.
6. Artziniegako udalerria sustatzen laguntzeko jarduerak.
7. Beste kultura eta kirol jarduera batzuk.

#### **2. artikulua. Eskatzaileak**

1. Aurreko artikuluan deskribatzen diren jarduerak Artziniengan sustatzeko interesa duen edozein entitate edo pertsonak eskatu ahal izango du dirulaguntza.

2. Proposatutako programek tokiko esparruari emango diote lehentasuna, edo interesgarriak izan behar dute udalerraren gizarte eta kultura garapenerako.

3. Dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarte eta pertsona fisiko guztiek dirulaguntza eman duen erakundearen logoa jarri behar dute agerian gauzatzen dituzten jarduera diruz lagundu guztietan, eta euskarari eta berdintasunari dagozkion irizpideak bete behar dituzte karteletan, hizkuntza eta irudi barneratzaileak erabiliz.

Horretarako, Udalak berdintasunaren arloko prestakuntza eta aholkularitza tekniko jarraitua antolatuko du elkarteentzat, eta itzulpen zerbitzua emango du.

Ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan antolakundeetan eta jardueren programazioan genero berdintasunaren arabera jarduten ez duten entitateak.

4. Elkarateak eta entitateak irabazteko xederik gabekoak izan beharko dira. Eusko Jaurlaritzaren elkarteetan erregistroan inskribatuta egon beharko dira.

5. Elkarateek deialdi honetarako aurkezten dituzten programak eta jarduerak Artziniegako Udalaren urteko kultur programazioaren barruan sartu beharko dira, eta, beraz, udalarekin hitzartu beharko da, aldez aurretik, Artziniengan 2021ean gauzatzen diren diruz lagundutako kultur programa batzuen eta besteen arteko koordinazio globala lortzeko.

### 3. artikulua. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

1. Hamabost egun baliodun izango dira eskaerak aurkezteko, oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak inprimaki ofizialean aurkeztu behar dira, Artziniegako Udalaren erregistro orokorrean, zuzenean nahiz administrazio prozeduraren legean ezarritako moduetako batean, eta, betiere, deialdian ezarritako epeen barruan.

2. Jardun arlo bakoitzak eskatzen duen dokumentazio espezifikoaz gain, eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, eta, haiekin batera, dokumentu hauek ere bai:

1) Eskabidea elkartea ordezkatzuz sinatzen duen pertsonaren izen-deiturak eta NANA.

2) Dirulaguntzaren epearen barruan garatu beharreko jardueretako bakoitzaren gaineko memoria-proiektua (urteko ekitaldiari dagokiona); euskarak zer presentzia izango duen zehaztu behar da eta berdintasuna eta dibertsitatea nola txertatzen diren azaldu, halakorik egiten bada.

3) Jarduera bakoitzaren programen eta/edo proiektuen deskribapena, eguna, lekua eta ordutegia adierazita. Jarduera zehatzen eskabideak jarduerak kudeatzeko behar besteko denboraz aurkeztu behar dira. Dirulaguntzaren eskabidetik bereizitako agirian zehaztu beharko da zer beharrian tekniko dakartzan (kaleak ixtea, oholak eta astoak, kirol pista, oholza...) diruz laguntzeko eskatzen den jarduerak.

4) Garatu beharreko jardueretako bakoitzaren aurrekontu xehatua, kontzeptuz kontzeptu; berariaz adierazi behar dira gastu eta diru sarrerak, eta diru sarreraren artean sartu behar dira beste organismo edo erakunde batzuek eman dituzten edo eman asmo dituzten dirulaguntzak nahiz beste edozein eratako diru sarrerak.

5) Proposatutako jardueran parte hartuko duten elkarten zerrenda.

6) Elkarteak aurreko ekitaldian gauzatu zituen jardueren zerrenda.

7) Zerrenda bat, zehaztuz zein jardueratan aritu zen doan elkarlanean elkartea udalarekin aurreko urtean.

8) Zinpeko aitortpena, beste sail, instituzio eta organismo batzuei egindako dirulaguntza eskaerei edo beste sail, instituzio eta organismo batzuek emandako dirulaguntzei buruzkoa.

9) Elkartearen zerga identifikazioko zenbakiaren fotokopia.

10) Eskatzailearen zinpeko adierazpena, jarduera gauzatzeak irabazteko xederik ez duela adierazten duena.

11) Zuzendaritza batzordearen inskripzio ziurtagiria.

12) Elkartea Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Orokorrean izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

13) Artziniegako Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak edo horiek egiaztatzeko baimena.

14) Dirulaguntza jasoko duen elkartearen kontuaren zenbakia.

Ez da beharrezkoa izango deialdi bakoitzean aurkeztea elkartearen eraketari eta egiturari buruzko dokumentazioa, hau da, 9., 11. eta 12. puntuetan aipatutakoa, baldin eta aurretik aurkeztu bada.

### 4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz laguntzeko moduko gastuak bat etorri behar du, inolako zalantzarik gabe, diruz lagundutako jardueraren izaerarekin, eta, betiere, behar-beharrezkoa izan behar du, eta ezarritako epearen barruan gauzatu, alegia, 2021. urtean; gainera, behar bezala justifikatuta egon behar du, indarrean dagoen araudiarekin eta udal ordenantzan ezarritakoarekin bat etorriz.

Honako gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

1) Diruz lagundutako jarduera egin ahal izateko beharrezkoak diren gastuak, ezarritako epean egindakoak, alegia, 2021. urtean.

2) Indarrean dagoen araudiarekin eta udal ordenantzan ezarritakoarekin bat etorritik behar bezala justifikatutakoak.

Justifikazioaren unean, azalpen memoria baten bidez azaldu beharko da gastu horiek nola gauzatu diren jarduera egitean.

Ez dira diruz lagunduko honako gastu hauek:

1) Udalak beste laguntza lerro batzuen bidez diruz lagundutako jarduera espezifikoak.

2) Herriko zaindariaren jaietako egitarauan diruz laguntzen diren jarduera espezifikoak.

3) Otordu gastuak, laguntzaile boluntarioei esker onez emandakoak izan ezik, jarduera gauzatzeko gastutzat hartzen baitira, bai eta jardueraren zati direnak eta/edo toki erakundeak berariaz onartuak ere.

4) Elkartearen barne funtzionamenduaren gastuak, ez eta bere jardueren zabalkundea egiteko publizitatearenak ere, ezta elkartearen web orria mantentzekoak ere, salbu eta toki erakundeak berariaz onartzen baditu.

Udalaren dirulaguntzetarako deialdi honen helburua da entitate eskatzaile horien ekintzari laguntzea eta ekintza hori osatzea.

Organo eskudunak bere esku izango du aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzea hala behar denean, eta, dokumentazio hori ez bada zuzena edo osoa, dagozkion neurriak ezarriko dira.

Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetzearen, entitate eskatzaileei ohartarazten zaie ezen zerrendan aipatutako dokumentuen parte gisa aurkeztutako datuak ez direla erabiliko urteroko dirulaguntza emateko prozeduran baizik, zeinaren deialdia oinarri hauek arautzen baitute.

Eskabidearekin batera ez bada aurkezten lehen aipatutako dokumentazioa, edo aurkeztutako dokumentazioak formazko hutsegiteren bat badu, interesdunari eskatuko zaio zuzen ditzala hutsegiteak edo osa ditzala aurkeztu gabeak hamar egun balioduneko epean, hala jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita.

## 5. artikulua. Balioespen irizpideak

Epaimahaiak, dirulaguntzak emateko edo banatzeko proposamenak aztertzeko, irizpide hauek izango ditu kontuan:

1. Aurkeztutako jarduerak baloratzeko irizpideak: guztira 26 puntu, honela banatuta:

a) Beste elkarte batzuekin harremana izateko gaitasuna: Artziniegako hainbat taldek parte hartzea diruz lagundutako jardueran. 2 puntu parte hartzen duen talde bakoitzeko, antolatzailea kontuan hartu gabe. Gehienez, 6 puntu.

b) Originaltasuna: ideia berriak, Artziniegako Udalak babesten dituen gainerako elkarteek lantzen dituzten proiektuak ez bezalakoak. 0 - 10 puntu bitartean.

c) Ekonomiaren ikuspuntutik, gastuen guztizko aurrekontuaren arabera baloratuko da jarduera, irizpide honen arabera:

1,00 - 1.499,00 euro artean: 4 puntu.

1.500,00 euro baino gehiago: 6 puntu.

e) Tokia: Jarduera egiten den herrigune bakoitzeko puntu 1. Jarduera herrigune batean baino gehiagotan gauzatzen bada, puntu bat jarduera gauzatzen den herrigune bakoitzeko (4 puntu gehienez).

Herriguneak: Artziniega, Campijo, Gordeliz, Mendieta, Erretes Tudela, Santa Koloma eta Soxoguti.

2. Elkartea Artziniegako kultur eta kirol arloan zenbateraino dagoen finkaturik. 20 puntu, honela banatuta:

Erakundeak herrian duen tradizioa:

10 urtetik gorako tradizioa eta jarduera: 5 puntu.

5 - 10 urteko tradizioa eta jarduera: 3 puntu.

1 - 5 urteko tradizioa eta jarduera: 1 puntu.

Urtebete baino gehiagoko antzintasuna ez duten elkarteek ezingo dute ohiko dirulaguntzarik jaso.

Elkarte eskatzaileak udalaren jardueretan laguntzea: Aurreko ekitaldian lagundutako jarduera bakoitzeko, puntu 1. Gehienez, 5 puntu.

Gauzatutako jarduerak: Aurreko ekitaldian gauzatutako jarduera bakoitzeko, puntu 2. Gehienez, 10 puntu.

3. Hizkuntza normalizazioko irizpideak. 0 - 6 puntu bitartean:

– Proiektua erabat euskaraz gauzatzen bada, 6 puntu.

– Proiektua ele bitan gauzatzen bada, 3 puntu.

– Jardueran ez bada euskararik erabiltzen, 0 puntu.

4. Berdintasun eta dibertsitate irizpideak. 0 - 6 puntu bitartean:

– Proiektuaren helburua berdintasuna eta dibertsitatea sustatzea bada: 6 puntu

– Proiektuak ez badu kontuan hartzen genero ikuspegia sartzea jardueran: 3 puntu.

– Proiektuak ez badu berdintasuna aipatzen: 0 puntu.

Aurkeztutako jarduera bakoitzaren % 80 lagunduko da diruz, gehienez ere.

Jarduera batek ere ezin izango du 3.000,00 eurotik gorako dirulaguntzarik jaso.

Aurreko ekitaldiari erreferentzia egiten dioten irizpideek 2019. urtea izango dute oinarri, eta ez 2020. urtea, COVID-19aren pandemiak eragindako gorabeherak direla eta.

#### **6. artikulua. Instrukzioa eta epaimahai kalifikatzailea**

Instrukzio prozedura eta epaimahaia dirulaguntzen ordenantza orokorrean aurreikusitakoak izango dira.

#### **7. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna**

Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ezingo da inoiz izan diruz laguntzeko eskatu den programaren edo jardueraren kostu osoa baino handiagoa.

Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inoiz ere ez dira izango gastu diruz lagungarriak.

#### **8. artikulua. Ebazpena**

Ebazpena emateko gehienezko epea bi hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Ebazpena hamar eguneko epean jakinaraziko da, eta ebazpenaren aurka legez zer errekurtso aurkez daitezkeen adierazi beharko da.

### 9. artikulua. Ordainketa

Dirulaguntza ordaintzeko, erakunde edo pertsona onuradunak aldez aurretik justifikatu beharko du emandako dirulaguntzarekin egin beharreko jarduera egin duela, dirulaguntzaren araudian ezarritako baldintzetan.

Ehuneko hirurogei aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza ematean, eta gainerako ehuneko berrogeia dirulaguntza justifikatutakoan.

Deialdiaren ebazpen egunetik aurrera ordainduko da dirulaguntza emateko ebazpenean adierazten den aurrerakina.

Gainerakoa ordainketa bakar batean ordainduko da, egindako gastuak behar bezala zerrendatu eta justifikatu ondoren. Ordainketa horri aurreko paragrafoko "aurrerakina" kenduko zaio, justifikazioa kultura edo kirol jardueraren gutzizko gastu eta diru sarrerengatik aurkeztu dela ulertuta.

### 10. artikulua. Dirulaguntza publikoen justifikazioa

Dirulaguntzak justifikatu egin beharko dira, Artziniegako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean aurreikusitako prozedurari jarraituz, frogagiriak Artziniegako Udalaren erregistroan aurkeztuz, hiru hilabeteko epean gehienez ere, jarduera amaitzen denetik hasita, eta 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen.

Oro har, onuradunaren justifikazioa gastu frogagiridun justifikazio kontua izan beharko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudiaren 72. artikuluari jarraiki:

Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteak eragindako gastuen justifikazioa, behar bezala zerrendatuta, dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako gastu aurrekontuaren zenbateko osoari dagokiona. Horretarako, dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira eta lege merkataritzan froga balio baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten gainerako agiriak. Dokumentuak jatorrizkoak izan beharko dira, edo, deialdiaren oinarri arauetan hala ezartzen bada, kopia konpultsatuak.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ
- Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea
- Data
- Fakturaren zenbakia

Ez dira justifikazio gastu gisa onartuko PFEZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokien zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiriak.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertu behar dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren erakunde onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztu behar da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertu behar dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituen.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.

– Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkatari-tzagune, autobide, bidaia txartel, eta abar), edo enpresa jaulkitzailearen zigilua duten jatorrizko fakturak, faktura ordaindu dela zehazten dutenak.

Dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartu den gastuen aurrekontu osoa justifikatzen ez bada, dirulaguntza murriztu egingo da egindako gastu txikienaren proportzioan.

a) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen balantzea.

b) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren memoria; honako hauek adierazi behar dira: noiz gauzatu den, zenbat pertsona bertaratu ziren edo zenbat pertsonak parte hartu zuten, etab.

#### **11. artikulua. Araudi aplikagarria**

Eskabideak aurkezteko prozedura azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta dirulaguntzak arautzen dituen udalen ordenantza orokorrean ezarritakoa izango da.

#### **12. artikulua. Bideratutako zenbatekoak**

Aurrekontu partida hauei esleitu zaizkie programa guztietarako zenbatekoak: 330.481.002 “Kultura jardueretarako dirulaguntzak” (6.700,00 euro) eta 341.481.002 “Kiroi jardueretarako dirulaguntzak” (1.000,00 euro).

Prozedura: norgehiagoka.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako, Artziniegako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

Interesdunen eskura daude Artziniegako Udalaren web orrian: [www.artziniegakoudala.eus](http://www.artziniegakoudala.eus)

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2021eko abuztuaren 23a

*Alkatea*

**JOSEBA VIVANCO RETES**